

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Zizur Nagusiko Catalina de Foix eta Camino de Santiago ikastetxe publikoek pista estali berria estreinatu dute

*Hezkuntza Departamentuak 660.000 euro eman ditu eraikinak finantzatzeko*

Viernes, 25 de marzo de 2011

### Hezkuntza

Departamentuak estalkiak jarri ditu Zizur Nagusiko Catalina de Foix eta Camino de Santiago ikastetxe publikoetako kirol pistetan. Horiei esker euria egiten duen egunetan bi ikastetxeetako ikasleek kirola egin ahal izango dute.

### Hezkuntza

Departamentuak 660.000 euro inbertitu ditu estalkiak eraikitzeko. Pista bakoitzaren azalera estalia 1.125 metro koadro da.

Pista horietan areto futbolera, eskubaloira eta minibasketera jolasean jardun daiteke.

Jarduera hori herriko ikastetxearen barrutia berriz urbanizatzeko plan orokorrean dago jasota. Barrutiak 25.827 metro koadro ditu eta aipatutako bi ikastetxeek, Erreniega ikastetxe publikoak eta 0 eta 3 urte artekoentzako haur eskolak partekatzen dute.

Eremua birmoldatzeko 2,4 milioi euro inbertitu dira guztira eta gaur eguerdian inauguratu dute Teresa Aranaz Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak eta Pedro Huarte herriko alkateak. Zenbateko horretatik 1,8 milioi euro eman ditu udalak eta 660.000 euro Nafarroako Udalak.

Zehazki, argiteria publikoaren sarea, euri uren eta hondakin uren saneamendua, lorategia eta altzariak berritu dira. Horiez gain, transformazio zentro bat eraiki da, aipatu diren bi estalkiak egin dira eta haurren eskolan Catalina de Foix ikastetxean zegoen estalkia jarri dute. Gauzak horrela, barrutiko ikastetxe guztiek eremu estali bat dute (Erreniega ikastetxeak lehenagotik zeukan).

Honorato Martín Sánchez, S.L.P arkitektura estudioak egin eta zuzendu du obra. Pisten estalkiak Azysa eraikuntza enpresak egin ditu eta gainerako jarduerak Construcciones Ecay, S.L. enpresak.



Zizur Nagusiko Catalina de Foix eta Camino de Santiago ikastetxe publikoetako agintari eta ordezkariak